

2025

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOA / COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI

AURREKONTU OROKORRAK PRESUPUESTOS GENERALES

05. Gobernantza, Administrazio Digitala
eta Autogobernua
05. Gobernanza, Administración Digital
y Autogobierno



IVAP
EJIE
Itelazpi

PROIEKTUA / PROYECTO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2025

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOA / COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI

AURREKONTU OROKORRAK PRESUPUESTOS GENERALES

PROIEKTUA / PROYECTO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2024ko urria / 1a, octubre 2024

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

05-GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA Y AUTOGOBERNUA	
05-GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO	6
Sekzioaren eta programen memoriak	
Memorias de la Sección y de los Programas.....	7
Gastuen egoera-orria	
El Estado de Gastos.....	62
1125 Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa	
Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.....	63
1211 Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autog. Egitura eta Laguntza	
Estructura y Apoyo de Gobernanza, Administración Digital y Autogob.	64
1212 Zerbitzu Orokorrak	
Servicios Generales.....	68
1213 F. Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	
Función Pública, Selección y Formación Personal.....	72
1214 Informatika eta Telekomunikazioak	
Informática y Telecomunicaciones.....	75
1215 Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	
Innovación y Administración Electrónica.....	78
1217 Erakundeen Harremanak	
Relaciones Institucionales.....	80
1218 Araubide Juridikoa	
Régimen Jurídico	84
1219 EAEko Administrazio Orokorreko beste Zerbitzuak	
Otros Servicios de la Administración General CAE	87
1228 BEM Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa	
MRR Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.....	89
4712 Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalkuntza	
Normalización Lingüística de la Admón. Pública	90
5415 Eraldaketa Digitala eta Ekintzailtza Berritzaile	
Transformación Digital y Emprendimiento Innovador.....	91
Sarreren egoera-orria	
El Estado de Ingresos	92
1211 Gobernantza Publikoa eta Aut. Egitura eta Laguntza	
Estructura y Apoyo de Gobernanza Pública y Autogo.	93
1212 Zerbitzu Orokorrak	
Servicios Generales.....	94
1213 F. Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	
Función Pública, Selección y Formación Personal.....	95
1214 Informatika eta Telekomunikazioak	
Informática y Telecomunicaciones.....	96
1217 Erakundeen Harremanak	
Relaciones Institucionales.....	97
1218 Araubide Juridikoa	
Araubide Juridikoa.....	98
Gastuen laburpenak	
Resúmenes de Gastos.....	99

Sarrerren laburpenak	
<i>Resúmenes de Ingresos</i>	106
ORGANISMO AUTONOMOAK	
<i>ORGANISMOS AUTÓNOMOS</i>	108
Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE / I.V.A.P.)	
<i>Instituto Vasco de Administración Pública</i>	109
ENTE, SOZIJETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK	
<i>ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS</i>	159
EJIE SA - Eusko Jaurjaritzaren Informatika Elkarte	
<i>EJIE, S.A. - Sociedad Informática del Gobierno Vasco</i>	160
Itelazpi SA	
<i>Itelazpi, S.A.</i>	180



05-GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA Y AUTOGOBERNUA
05-GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO



Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA

GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

SARRERA

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailari dagozkion egitekoak eta jardun-arloak, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuan jasotzen dira.

Sailak lau sailburuordetza ditu: Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza, Araubide Juridikokoa, Enplegu Publikokoa eta Administrazio Digital eta Zerbitzu Orokorretakoa.

Gainera, eta zuzenean sailburuaren mende, Zerbitzu Zuzendaritza saileko gainerako organoei laguntzeko organo gisa eratzten da; Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak zuzeneko laguntza ematen dio bere karguaren arabera esleitura dituen eginkizunak betetzeko; eta Autogobernu Zuzendaritzak laguntza ematen dio autogobernuaren eta estatutuen garapenaren arloko politika zuzentzeari, bultzatzeari eta garatzeari dagokionez.

ZERBITZU ZUZENDARITZA

Honako gai hauekin lotutako jardunak sartzten dira Zerbitzu Zuzendaritzan: ekonomia- eta aurrekontu kudeaketa, langileen administrazioa eta kudeaketa, administrazio-kontratazioa, informatika, hizkuntza normalizazioa, sailarekin lotura zuzena duten estatistika-eragiketak eta sail osoari laguntza orokorra emateko beste zenbait jarduerak. Halaber, barne funtzionamenduko jarduerak ere koordinatzen ditu. Era berean, Gobernu Kontseiluaren eta Gobernu Batzordeen mende jarri beharreko gaiak ere izapidetzen ditu. Baita ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko politikak sustatzen ditu sailean.

KABINETE ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak sailburuari laguntza zuzena ematen dio karguaren ondorioz dagozkion egitekoak burutzeko. Sailburuaren programaren jarraipena egiteaz gainera, Saileko sailburuordetzen arteko koordinazioaz arduratzen da eta Sailak Eusko Legebiltzararekin nahiz Arartekoarekin dituen harremanak bideratzen ditu.

Era berean, bere zeregina da komunikabideekiko harremanak planifikatzea, ezartzea eta koordinatzea, bai eta Sailaren informazio orokorra komunikatzeko eta zabaltzeko ekintzak egitea ere.

INTRODUCCIÓN

La atribución de funciones y áreas de actuación que van a corresponder al Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno viene establecida por el Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento.

El Departamento se estructura en cuatro Viceconsejerías: de Relaciones Institucionales, de Régimen Jurídico, de Empleo Público y de Administración Digital y Servicios Generales.

Además, y dependientes directamente de la Consejera, la Dirección de Servicios se configura como órgano de apoyo a los restantes órganos del Departamento en materias de naturaleza común a las diversas áreas del mismo; la Dirección de Gabinete y Comunicación le presta asistencia directa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en virtud de su cargo; y la dirección de Autogobierno le asiste en relación con la dirección, impulso y desarrollo de la política en materia de autogobierno y desarrollo estatutario.

DIRECCIÓN DE SERVICIOS

En la Dirección de Servicios se incluyen las actividades relacionadas con la gestión económico-presupuestaria, administración y gestión del personal, contratación administrativa, informática, normalización lingüística, operaciones estadísticas directamente relacionadas con el departamento, y otras actividades de apoyo general al conjunto del Departamento, coordinando igualmente distintas actuaciones de funcionamiento interno. Así mismo, tramita los asuntos del Departamento que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y a las Comisiones del Gobierno. Además, impulsa las políticas de igualdad de mujeres y hombres en el departamento.

DIRECCION DE GABINETE Y COMUNICACIÓN

La Dirección del Gabinete y Comunicación presta a la Consejera asistencia directa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en virtud de su cargo. Además del seguimiento del programa de la Consejera, vela por la adecuada coordinación entre las Viceconsejerías del Departamento y canaliza las relaciones del Departamento con el Parlamento y el Ararteko.

A su vez es su cometido planificar, establecer y coordinar las relaciones con los medios de comunicación, así como realizar las acciones de comunicación y difusión de la información de carácter general del Departamento

AUTOGOBERNU ZUZENDARITZA

Autogobernu Zuzendaritzak zuzentzen, sustatzen eta garatzen du autogobernuaren, erkidego-garapenaren eta transferentzia-prozesuaren arloko politika.

Halaber, Autogobernu Zuzendaritzari dagokio legezko iritziak ematea bere eskumeneko gaitan, edo Estatuko Administrazio Orokorreko erakundeekiko, lurralde historikoeziko edo toki-erakundeekiko eskumen-arazo edo harremanetan. Baita Araubide Juridikoaren Sailburuordetzarekin batera lan egiten du Konstituzio Auzitegian eta Arbitraje Batzordean ekintza judizialak gauzatzeari, atzera egiteari, amore emateari edo gai horien gaineko transakzio judizialari buruzko ebazpen-proposamenetan.

ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDETZA

Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren eginkizunen artean dago Jaurlaritzaren Kontseiluaren lanak antolatzea, EHAA argitaratzea eta Jaurlaritzak Legebiltzarrean hartutako konpromisoak betetzen ote diren zaintzea. Lehendakariari Eusko Legebiltzarreko eta Arartekoarekiko harremanetan laguntzen dio.

Fundazioen, elkarten eta elkargo profesionalen arloan Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion araubide orokorrari, babesletzari eta erregistroari buruzko eginkizunak ere badagozkie, bai eta toki-administrazioaren arloko jarduerak gainbegiratu eta aztertzea ere.

Sailburuordetzaren beste jarduera-eremu bat da gobernu irekiaren politikak bultzatzea gai publikoetan, besteak beste gardentasuna eta herritarren parte-hartzea, parte-hartze soziala eta herritarrei zuzeneko informazioa ematea, teknologia berrien eta komunikazio-teknologiaren bidez. Halaber, ekintza publikoan gobernu ona bultzatzea dagokio.

Era berean, Barneko Informazio-Sistema Sailari atxikitzen zaio Sailburuordetza honen bitartez.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARITZA

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak, Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokionez, Kontseiluaren bilkurak prestatuko ditu eta gai-zerrendak prestatu eta banatuko ditu. Era berean, akordioak izapidetzeko eta baliozkoak izateko beharrezkoak diren legezotasun juridikoaren, finantzarioaren eta formalaren baldintzak betetzen direla zaintzen du, eta hartutako erabakien aktak eta ziurtagiriak prestatu eta zaintzen ditu.

Era berean, zuzendaritza hori Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarrearen arteko harreman- eta komunikazio-organoa da, eta Legebiltzarreko Jaurlaritzari ezartzen dizkion konpromisoen jarraipena egiten du. Gobernuaren eta Arartekoaren arteko harreman- eta komunikazio-organoa gisa ere jarduten du.

DIRECCIÓN DE AUTOGOBIERNO

La Dirección de Autogobierno ejerce las funciones de dirección, impulso y desarrollo de la política en materia de autogobierno, desarrollo autonómico, y el proceso de transferencias que implica.

Así mismo, le corresponde a esta Dirección de Autogobierno la emisión de opiniones legales en temas de su competencia o que se centren en cuestiones competenciales o de relación con las instituciones de la Administración General del Estado, los Territorios Históricos o los entes locales. Así mismo colabora con la Viceconsejería de Régimen Jurídico en las propuestas de resolución relativas al ejercicio ante el Tribunal Constitucional y la Comisión Arbitral de acciones judiciales, desistimiento, allanamiento o transacción judicial sobre esas mismas materias.

VICECONSEJERÍA DE RELACIONES INSTITUCIONALES

La Viceconsejería de Relaciones Institucionales tiene entre sus funciones organizar los trabajos del Consejo de Gobierno, la publicación del BOPV, así como el seguimiento del cumplimiento de los compromisos parlamentarios adquiridos por el Gobierno. Asiste al Lehendakari en sus relaciones con el Parlamento Vasco y el Ararteko.

También le competen las funciones relativas al régimen general, protectorado y registro que en materia de Fundaciones, Asociaciones y Colegios Profesionales corresponden a la Comunidad Autónoma de Euskadi así como la supervisión y estudio de las actuaciones en materia de Administración Local.

Otro de los ámbitos de actuación de la Viceconsejería es el impulso de las políticas de gobierno abierto, entre otras, la transparencia y de la participación ciudadana en los asuntos públicos, la participación social e información directa a la ciudadanía mediante las nuevas tecnologías y de comunicación. Igualmente corresponde la promoción del buen gobierno en la acción pública.

Asimismo, el Sistema Interno de información se adscribe al Departamento a través de esta Viceconsejería.

DIRECCIÓN DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y RELACIONES CON EL PARLAMENTO

La Dirección de la Secretaría de Gobierno y de Relaciones con el Parlamento ejerce, con respecto al Consejo de Gobierno, entre otras funciones, la preparación de las sesiones de dicho Consejo y la elaboración y distribución de los órdenes del día. Asimismo, cuida del cumplimiento de los requisitos de legalidad jurídica, financiera y formales necesarios para la tramitación y validez de los Acuerdos y prepara y custodia las actas y certificaciones de los Acuerdos adoptados.

Asimismo, dicha Dirección actúa como órgano de relación y comunicación entre el Gobierno Vasco y el Parlamento Vasco, realizando el seguimiento de los compromisos que el Parlamento imponga al Gobierno. También actúa como órgano de relación y comunicación entre el Gobierno y el Ararteko.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari dagokionez, edizio-, argitaratze- eta hedatze-funtzioak dagozkio, bai eta aldizkari ofizial horren eskubide ekonomikoak kudeatzea ere.

Bestalde, zuzendaritza honi dagokio euskal administrazio publikoetako agintarien sinadura legeztatzea, atzerrian ondorioak izan behar dituzten dokumentuei dagokienez.

2025. urtean, aurrez aurreko prestakuntza emango zaie sail bakoitzean testuak EHAAra bidaltzeaz arduratzen diren langileei, idazketa-, aurkezpen- eta estilo-arauei buruz argitaratzeko, kudeaketa arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Era berean, EHAak gaien araberako eskuliburu espezifiko batzuk egingo ditu, langile horiek beren burua prestatu eta buletinaren aplikazioaren erabileran sakondu ahal izan dezaten.

Buletinaren aplikazioan hobekuntza informatikoak ezartzeko prozesuarekin jarraituko da, EHAAr argitaratu behar diren espedienteen kudeaketa arintzeko.

TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGISTROETAKO ZUZENDARITZA

Toki Araubidearen arloaren funtsezko proiektuen artean dago, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen araudia garatzeko behar diren xedapenak lantzea.

Lege-arauetan toki-araubidearen arloan autonomia erkidegoari ematen zaizkion eginkizunei dagokienez, beharrezkoak diren ebazpenak emango dira horiek gauzatzeko. Horrez gain, Foru Aldundietako toki-araubideko sailekin, toki erakundeekin eta EUDELekin ditugun harremanak indartzen jarraituko da.

Era berean, toki erakundeekiko komunikazioa sustatuko da, hura modu zuzenagoan egin dadin, horretarako egun dauzkaten bitarteko telematikoak egokituz.

Zuzendaritzak, halaber, fundazioen, elkarten eta elkargo profesionalen arloan Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion araubide orokorrari, babesletzari eta erregistroari buruzko eskumenak baliatzen ditu.

Administrazio Erregistroen Zerbitzuak zerbitzu digitalen, prozesuen eta administrazio-prozeduren sinplifikazioan, automatizazioan eta kalitatean eragingo du 2025ean.

Era berean, jarraipena eman nahi zaie bere eskumen orokorreko erakundeei buruzko aholkularitza- eta informazio-eginkizunei, bai eta babesletza-lanak egiten dituen gainbegiratze-eginkizunei ere.

GOBERNU IREKIAREN ETA GOBERNU ONAREN ZUZENDARITZA

Respecto al Boletín Oficial del País Vasco, le corresponden las funciones de edición, publicación y difusión, así como la gestión de los derechos económicos de dicho diario oficial.

Por otro lado, corresponde a esta Dirección la legalización de la firma de las autoridades de las Administraciones Públicas Vascas en relación con documentos que han de surtir efectos en el extranjero.

En el año 2025 se dará formación presencial al personal responsable en cada Departamento de la remisión de los textos al BOPV para su publicación en relación con las normas de redacción, presentación y estilos al objeto de lograr una gestión más ágil y eficiente. Asimismo, el BOPV elaborará unos manuales específicos por temas, para que dicho personal pueda ir autoformándose y profundizando en el manejo de la aplicación de boletín.

Se continuará con el proceso de implantación de mejoras informáticas en la aplicación de boletín al objeto de agilizar la gestión de expedientes que han de publicarse en el BOPV.

DIRECCIÓN DE RELACIONES CON ADMINISTRACIONES LOCALES Y REGISTROS ADMINISTRATIVOS

Uno de los proyectos fundamentales del área de Régimen Local es adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo normativo de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

En relación con las funciones que las normas legales atribuyen a la Comunidad Autónoma en materia de régimen local, se dictarán las resoluciones necesarias para su ejecución. Así mismo, se continuará reforzando las relaciones con los departamentos de régimen local de las Diputaciones Forales, con las entidades locales y con EUDEL.

Por otra parte, se fomentará la comunicación con las entidades locales, de forma que ésta se realice de una manera más directa, adaptando para ello los medios telemáticos que se poseen actualmente.

La Dirección, asimismo, ejerce las competencias relativas al régimen general, protectorado y registro que en materia de fundaciones, asociaciones y colegios profesionales corresponden a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El servicio de Registros Administrativos en el año 2025 incidirá en la simplificación, automatización y mejora de la calidad de los servicios digitales, procesos y procedimientos administrativos.

Así mismo, se pretende dar continuidad a sus funciones de asesoramiento e información sobre las entidades de su competencia general y de supervisión respecto de las que ejerce tareas de protectorado.

DIRECCIÓN DE GOBIERNO ABIERTO Y BUEN GOBIERNO

Zuzendaritza honek helburu nagusizat gobernu irekiaren bultzada du, herritarrekin daukagun komunikazioa erraztu eta normalizatuaz gardentasuna, herritarren partaidetza eta lankidetzaren bitartez. Zuzendaritza honek, besteak beste, komunikazioa, gardentasuna, parte-hartzea eta herritarrekin sarean elkarlana sustatzen ditu, horretarako interneten eta sare sozialetan multimedia eta ikus-entzunezko lanabes berrien bitartez.

Jaurlaritzako gainerako sailekin elkarlanean eta beharrezko aholkularitza eskainiaz, gardentasunaren arloan sakondu eta hobetu nahi da gobernu irekiaren kultura zabalduaz erakundean. Halaber, gobernu irekia sustatzen jarraituko da erreferentziatzko nazioarteko sareetan, eta Euskadira gobernu irekiaren hirugarren ekintza-plana onartuko da, Gobernu Irekirako Aliantzaren (OGP ingelesezko sigletan) esparruan. Herritarren parte-hartzeari dagokionez, Irekia plataformaren bitartez eta sare sozialetan elkarrekintza sustatuko da eta harreman-kanala indartuko da herritarren eta arduradun publikoen arteko topaketen bidez. Era berean, euskal administrazio publikoen antolamendua eta gobernu ona bultzatzea dagozkie.

BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA

89/2023 Dekretua, ekainaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duenak, sektore publikoko erakunde guztietan informazioaren barne-sistema bat sortzeko legezko betebeharra bete zuen. Proiektua 2024an jarri zen martxan, arduraduna izendatu ondoren. Informazioa jasotzeko kanalak ezarri ziren, eta jasotako informazioak izapidetu eta ebatzi ziren, baita babes-neurrien eskaerak ere. Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkako arau-haustek edo arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak izan daitezkeen ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazio anonimoa edo ez jaso behar da, Dekretuaren 4. artikulua jasotzen duen esparru materialaren barruan. Informazio horiek ikertu eta zehapena proposatzen da, eta, batez ere, zehapena eragin duten jokabideak zuzentzea.

2025ean zerbitzuari jarraipena eta hedapena eman nahi zaio, jasotzen diren babes-informazioak eta -eskaerak izapidetu eta sistema hobetu ahal izateko, prozesu osoa kudeatzeko balioko duen aplikazio bat ezarri.

ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDETZA

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen egungo dekretuaren arabera, Jaurlaritzaren zerbitzu juridiko zentralak Araubide Juridikoaren Sailburuordetzan daude, eta honako egiteko hauek dituzte: barneko araugintza kontrolatzea, legeen garapenaren alorrean jardutea eta epaiketetan administrazioa ordezkatzeko eta defendatzea, testu honetan agertzen diren jardute-eremu batzuei dagozkien salbuespenekin.

El objetivo principal de esta Dirección es el impulso del gobierno abierto, para facilitar y normalizar la comunicación con la ciudadanía a través de la transparencia, la participación ciudadana y la colaboración. Entre otros, esta Dirección promueve la comunicación, la transparencia, la participación y la colaboración en red de la ciudadanía mediante el impulso de nuevas herramientas multimedia y audiovisuales en internet y redes sociales.

En colaboración con el resto de Departamentos del Gobierno y ofreciendo el asesoramiento necesario, se prevé profundizar y mejorar en el ámbito de la transparencia divulgando la cultura del gobierno abierto en la organización. Se continuará en la promoción del gobierno abierto en las redes internacionales de referencia y se aprobará el tercer plan de acción de gobierno abierto para Euskadi en el marco de la Alianza para el Gobierno Abierto (OGP por sus siglas en inglés). En lo relativo a la participación ciudadana, se promoverá la interacción en la plataforma Irekia y redes sociales y se reforzará el canal de relación a través de encuentros entre ciudadanía y responsables públicos. Corresponde igualmente la organización de las Administraciones Públicas vascas así como la promoción del buen gobierno.

SISTEMA INTERNO DE INFORMACIÓN

El Decreto 89/2023, de 13 de junio, de creación y regulación del Sistema interno de información de infracciones normativas y de protección de las personas informantes en el marco del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi vino a cumplir con la obligación legal de creación de un Sistema interno de información en todas las entidades del sector público. La puesta en marcha del mismo se ha realizado en 2024, tras el nombramiento de su persona responsable, con la implantación de los canales de recepción de informaciones y la tramitación y resolución de las recibidas, así como de las solicitudes de medidas de protección. Se trata de recibir informaciones anónimas o no sobre acciones u omisiones que puedan constituir infracciones del Derecho de la Unión Europea o infracciones penales o administrativas graves o muy graves, dentro del ámbito material que recoge el artículo 4 del Decreto. Dichas informaciones se investigan y se propone la sanción y sobre todo la corrección de las conductas que las han motivado.

En 2025 se pretende dar continuidad y difusión al servicio, de modo que se tramiten las informaciones y solicitudes de protección que se reciban y pueda mejorarse el sistema con la implantación de una aplicación que sirva para la gestión de todo el proceso.

VICECONSEJERÍA DE RÉGIMEN JURÍDICO

Según el Decreto vigente, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, se encuadran los servicios jurídicos centrales del Gobierno, a los que corresponde el control normativo interno, la actuación en el ámbito del desarrollo legislativo y la representación y defensa en juicio de aquella, con las salvedades relativas a determinados ámbitos de actuación que en el texto se señalan.

Sailburuordetza horri atxikita, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoa dago, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kide anitzeko aholkularitza-organo goren.

LEGE GARAPEN ETA ARAU KONTROLERAKO ZUZENDARITZA

Zuzendaritza honek arreta berezia jarriko du Jaurlaritzako Sailek eskatutako irizpen juridikoak egiteko, haietako batzuei eragiteagatik bereziki zaila izateagatik edo koordinatzeko behar berezia edukitzeagatik, Sailak berak egiten ez duenean.

Halaber, behar diren legezkotasun-kontrolak egingo ditu, Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena behar ez badute, Aholku Batzorde Juridikoa arautzen duen Legeak eta apirilaren 25eko 144/2016 Dekretuak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena, hala xedatzen dutelako, eta egiten zaizkion kontsultak ebatziko ditu dekretu horretan xedatutakoaren arabera.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko Idazkaritza Nagusiari dagozkion zereginak beteko ditu, urriaren 4ko 140/2016 Dekretuak, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuak onartzekoak, xedatutakoaren arabera, Batzordearen lanetan koordinatuz eta laguntza emanez, Batzorde teknikoaren lanak zuzenduz eta behar diren administrazio-zerbitzuak erraztuz.

Halaber, Aurrekontuen Legean Zuzenbidearen Euskal Akademiaren alde aurreikusitako diru-laguntza izenduna betearazteko behar diren gestioak egingo ditu.

AUZIBIDE ZUZENDARITZA

Zuzendaritza bere jardunaren kalitatea eta bere legelarien prestigioa areagotzen ahaleginduko da zirkulu profesional eta juridikoetan, arlo horietan jarduten baitute.

Bestalde, errekurtsuak eta erreklamazioak murrizteko eta prebenitzeko xedea duten eginkizunak indartuko dira, sailekiko harreman-politikan aurrera eginez, Jaurlaritzako eremu guztietan prebentzio-dinamika bat sartzeko eta administrazio-ebazpenen kalitate juridikoa hobetzen laguntzeko, liskartasunaren prebentzioko politika bat lortzeko asmoz, eta herritarrek aurkezten dituzten administrazio erreklamazioak ez daitezen automatikoki ezetsi eta ez daitezen jarduera mekanikoak egin.

Azkenik, Zuzendaritzak jarraipena egingo du Justizia Administrazioarekiko harremanetarako sistema elektronikoaren (PSP) ezarpenean, Sailburuordetzako pertsonala eta sistemak Botere Judizialaren organoekiko komunikazio modu berri horretara ahalik eta hoberen egokitzeko.

EUSKADIKO A HOLKU BATZORDE JURIDIKOA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere lanarekin jarraituko du, bere doktrina hobetzeko eta doktrina hori hedatzeko.

Asimismo, queda adscrita en su seno la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, órgano colegiado superior consultivo de las administraciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DIRECCIÓN DE DESARROLLO LEGISLATIVO Y CONTROL NORMATIVO

Esta Dirección pondrá una especial atención en la elaboración de los dictámenes jurídicos, solicitados por los distintos Departamentos del Gobierno, que por su especial dificultad o necesidad de coordinación por afectar a varios de ellos, no se elaboran en el propio Departamento.

Igualmente elaborará los controles de legalidad necesarios que no precisan del dictamen de la Comisión Jurídica Asesora por estar así establecido en la Ley reguladora de la Comisión Jurídica Asesora y en Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, y resolverá las consultas que se le planteen conforme a lo dispuesto en el citado decreto.

Desarrollará las labores propias de la Secretaría General de la Comisión de Derecho Civil Vasco, conforme a lo dispuesto en el Decreto 140/2016, de 4 de octubre, de aprobación de los Estatutos de la Comisión de Derecho Civil Vasco, coordinando y prestando asistencia en los trabajos de la Comisión, dirigiendo las labores del Comité técnico y facilitando los servicios administrativos precisos.

Así mismo, llevará a cabo las gestiones necesarias para la ejecución de la subvención nominativa prevista en la Ley de Presupuestos a favor de la Academia Vasca del Derecho.

DIRECCIÓN DE LO CONTENCIOSO

Esta Dirección centrará sus esfuerzos en conseguir incrementar la calidad de sus actuaciones y el prestigio de sus letradas y letrados en los círculos profesionales y judiciales, al que van encomendadas sus actuaciones.

Además, se reforzarán las tareas dirigidas a disminuir o prevenir la interposición de recursos o reclamaciones progresando en la política de relación con los Departamentos, a fin de introducir en todos los ámbitos del Gobierno una dinámica preventiva que contribuya a la mejora de la calidad jurídica de las resoluciones administrativas, y conseguir una política de prevención de la litigiosidad, evitando el rechazo automático y las actuaciones mecánicas en relación a las reclamaciones administrativas presentadas por los ciudadanos.

Por último, la Dirección realizará un seguimiento en la implementación del sistema electrónico de relación con la Administración de Justicia, PSP, con el objeto de conseguir la mejor adaptación posible del personal y los sistemas de la Viceconsejería a esta nueva forma de comunicación con los distintos órganos del Poder Judicial.

COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI

La Comisión Jurídica Asesora de Euskadi proseguirá con su tarea de mejora de su doctrina, así como la difusión de la misma.

ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDETZA

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen egungo dekretuak ezartzen du zer egin behar dituen Enplegu Publikoko Sailburuordetzak autonomia erkidegoaren esparruko giza baliabideen politikaren plangintzan, zuzendaritzan eta koordinazioan, bai eta EAEko administrazioaren zerbitzura dauden langileei buruzko politikaren diseinuarekin, gauzatzearekin eta kudeaketarekin lotutakoetan ere; gainera, Sailburuordetza horrek proposatu behar ditu prestakuntzaren, langileen ordezkarietako harremanen eta negoziazioen eta adostutako itunak eta hitzarmenak betetzetik sortzen diren ekintzen arloko jarraibideak.

Azken aldian Enplegu Publiko Sailburuordetza arduratu da gauzatzen ari diren proiektu estrategikoak gidatzeaz eta bultzatzeaz; proiektu horien xedea da giza baliabideen kudeaketa optimizatzea, bateratzea eta egokitzea teknologiarik eta funtzionaltasunari dagokienez.

Aurrerapauso-ildo horri jarraiki, 2025eko ekitaldian funtzio publikoaren politika egituratuko duten erronka berriei eusten jarraitzea proposatzen da, honako helburu hauekin:

Euskal Enplegu Publikoaren Legearen erregelamendu bidezko garapena.

Langile publikoen lan-baldintzak arautzen dituzten hitzarmen eta akordio berriak langileen ordezkarietako negoziatzea.

Langile digitalak kudeatzeko sistema bat ezartzea, EIZU proiektua garatzearen ondorioz. (Langileen Erregistroa).

Enplegu publikoa sendotzeko hautaketa- eta hornidura-prozesuak amaitzea.

Ikuskaritza Zerbitzua bultzatzea, enplegu publikoko politiken ebaluatzaile gisa, eta ikuskapen-txostenak egitea, 2014ko apirilaren 29ko Gobernu Kontseiluaren akordioa indarrean jarri zenetik esleitutako zerbitzu-kontratueterako ikuskapen-planaren arabera. Akordio horren bidez, zerbitzu-kontratuak egiteko jardunbide egokiei buruzko jarraibideak onartu ziren.

ARDATZ Planean onartutako Sailaren estrategian txertatuko diren Administrazio Orokorreko pertsonen kudeaketaren arloko proiektuak abiaraztea. Estrategia horretan, beste gai garrantzitsu batzuen artean, bereziki azpimarratuko da antolaketa-kultura berri bat garatzea, bai eta pertsonak kudeatzeko sistema berri bat garatzea ere, ezagutzari eustean eta enplegua sendotzean oinarritutako belaunaldi-erleboa bultzatuko duena.

Administrazio Orokorren III. Berdintasun Plana garatzea.

2025eko EPEa onartzea.

2025eko Lekualdatze Lehiaketa Orokorren deialdia.

VICECONSEJERÍA DE EMPLEO PÚBLICO

El Decreto vigente, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, fija los cometidos de la Viceconsejería de Empleo Público en la planificación, dirección y coordinación de la política de recursos humanos en el ámbito de la Comunidad Autónoma y, de igual manera, los dirigidos al diseño, ejecución y gestión ordinaria de la política de personal al servicio de la Administración de la CAE; así como la propuesta de directrices en materia de formación, la relación y negociación con los representantes del personal y las acciones derivadas del cumplimiento de los pactos y acuerdos alcanzados.

La Viceconsejería de Empleo Público viene asumiendo el liderazgo e impulso de proyectos estratégicos en curso de ejecución y dirigidos a optimizar, unificar y adaptar tecnológica y funcionalmente la gestión de los recursos humanos.

En esta línea de progreso se propone continuar abordando, en el ejercicio 2025, nuevos retos vertebradores de la política de función pública que culminarán en:

El desarrollo reglamentario de la Ley de Empleo Público Vasco.

La negociación con los representantes del personal de los nuevos Convenios y Acuerdos reguladores de las condiciones de trabajo de las personas empleadas públicas.

La implementación de un sistema de gestión del personal digital derivado del desarrollo del proyecto EIZU. (Registro de Personal).

Finalización de los procesos de selección y provisión para la consolidación del empleo público.

El impulso del Servicio de Inspección como evaluador de las diferentes políticas de empleo público, así como la elaboración de informes de inspección de acuerdo con el Plan de inspección para los contratos de servicios adjudicados desde la entrada en vigor del acuerdo de Consejo de Gobierno de 29 de abril de 2014, por el que se aprueban instrucciones sobre buenas prácticas en la celebración de contratos de servicios.

La puesta en marcha de proyectos en materia de gestión de personas de la Administración General que se integrarán en la estrategia del Departamento aprobada en el Plan ARDATZ, donde, entre otras cuestiones también relevantes, se incidirá especialmente en el desarrollo de una nueva cultura organizacional, así como en el desarrollo de un nuevo sistema de gestión de personas que impulse el relevo generacional basado en el mantenimiento del conocimiento y la consolidación del empleo.

El desarrollo del III Plan de Igualdad de la Administración General.

La aprobación de la OPE 2025.

La convocatoria del Concurso General de Traslados 2025.

ENPLEGU PUBLIKOKO ZUZENDARITZA

Enplegu Publikoaren eremuan, 2025eko ekitaldirako helburu nagusia da, hautaketa-prozesuak amaitu ondoren, bigarren faseko eta hurrengoetako jabetza-hartzeak kudeatzea, lanpostuak aldatzea, merezimendu-lehiaketak amaitzea eta lekualdatutako langileak birkokatzea.

Azkenik, hautaketa-prozesuak amaitu ondoren, lan-poltsa berriak eratuko dira.

2025ean, langileen arloko prozedurak digitalizatzeko planarekin jarraituko da, eta EIZU sisteman garatuko dira Administrazio Orokorreko funtzionarioak lekualdatzeko lehiaketa-prozesuak eta irakasle funtzionario izateko hautaketa-prozesuak. Zerbitzu-arrazoiengatik kalte-ordain prozedurak ezartzea ere aurreikusten da, eta horrek EIZU eta EIKA sistemen, erretiroen, administrazio-egoeren eta lanpostura itzultzeen arteko integrazioa ekarriko du. Prozedura horietan sartzeko, Enplegu Publikoaren Atarian Enplegatuaren Arloa gaituko da.

Enplegu Publikoaren Legea garatzeko enplegu publikoaren eredu berri bateranzko barne-berrantolaketa esparruan, garatu beharreko plangintzan (Ardatz 2020-2030 Plana eta Berdintasun Plana) oinarrituta eta lotuta, honako lan hauek egingo dira:

Adinaren kudeaketaren azterketa, kudeaketa publikoaren eremu guztietatik, ezagutzaren kudeaketa sendotzeko eta belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko garatu beharreko ekintzak zehaztu eta zehaztu ahal izateko.

Lidergo-estilo berriak sustatzeko eta garatzeko programak sartzeko, genero-ikuspegia txertatuz.

Lanpostu hutsen kudeaketa planifikatuaren metodologia aplikatuz egindako testaren ondorioetatik eratorritako ezarpena.

EAEko Administrazio Orokorren lan-eskaintza publiko berria kudeatuko da 2025eko ekitaldirako.

Pertsonen kudeaketari buruzko proiektua garatuko da Ardatz 2020-2030 Planaren esparruan.

LAN-HARREMANEN ZUZENDARITZA

Lan Harremanen esparruan, helburu orokorra da Administrazio orokorrari, erakunde autonomoei eta sozietate publikoei atxikitako langileen lan-baldintzak modu eraginkor eta efizientean arautzea, kalitatearen, bikaintasunaren eta gizonen berdintasunaren printzipioen arabera, eta EAEko Administrazioaren zerbitzuko langileen ordezkariekin sinatutako akordio eta hitzarmen kolektiboen aplikazioa bermatzea, eta akordio horien jarraipen-batzordeak eratzea, lortutako itunen indarralditik eta aplikaziotik eratorritako gai guztiak interpretatzeko.

DIRECCIÓN DE EMPLEO PÚBLICO

En el ámbito del Empleo Público, el objetivo principal para el ejercicio 2025, tras la finalización de los procesos selectivos, la gestión de las tomas de posesión de la segunda fase y siguientes, los cambios de puestos, la finalización de los concursos de méritos y la recolocación del personal desplazado.

Por último, se constituirán nuevas bolsas de trabajo tras la finalización de los procesos selectivos.

En el año 2025 se continuará con el plan de digitalización de los procedimientos en materia de personal, con el desarrollo en el sistema EIZU de los procesos de concurso de traslados del personal funcionario de la Administración General y de selección para el acceso a la condición de personal funcionario docente. También se prevé implantar los procedimientos de indemnizaciones por razones de servicios, que implicará una integración entre los sistemas EIZU y EIKA, los de jubilaciones, situaciones administrativas y reingresos. Para el acceso a estos procedimientos se habilitará el Área de la Persona Empleada en el Portal del Empleo Público.

En el marco de una reorganización interna hacia un nuevo modelo de empleo público en desarrollo de la Ley de Empleo Público, se llevarán a cabo sobre la base y vinculación de la planificación a desarrollar (Plan Ardatz 2020-2030 y Plan de Igualdad) los siguientes trabajos:

Un análisis de la gestión de la edad desde todos los ámbitos de la gestión pública que nos permita determinar y concretar acciones a desarrollar en aras a consolidar la gestión de conocimiento e impulsar el relevo generacional.

La incorporación de programas de impulso y desarrollo de nuevos estilos de liderazgo incorporando la perspectiva de género.

La implantación derivada de las conclusiones del test realizado en aplicación de la metodología de la gestión planificada de vacantes.

Se gestionará la nueva oferta de empleo público de la Administración general de CAPV para el ejercicio 2025.

Se desarrollará el proyecto sobre gestión de personas en el marco del Plan Ardatz 2020-2030.

DIRECCIÓN DE RELACIONES LABORALES

En el ámbito de Relaciones Laborales, el objetivo general se dirige a regular de forma eficaz y eficiente bajo los principios de calidad, excelencia e igualdad de mujeres y hombres las condiciones de trabajo del personal adscrito a la Administración general, Organismos autónomos y Sociedades públicas, así como a garantizar la aplicación de los acuerdos y convenios colectivos suscritos con los representantes del personal al servicio de la Administración de la CAE, y constituir las Comisiones de Seguimiento de dichos Acuerdos para interpretar cuantas cuestiones deriven de la vigencia y aplicación de los pactos alcanzados.

Era berean, laguntza emango da negoziazio kolektiboko prozesuen martxa errazteko, batez ere EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako mahaien eremuan, eta prozesu horiei lotutako lan-batzordeen funtzionamendu egokia errazteko, eta euskarria emango zaie sektore, erakunde publiko eta sozietate publikoetako negoziazio kolektiboaren koordinazio-tresnei.

2025. urtean, Lan Harremanen Zuzendaritzak gidatuko du negoziazio kolektiboa Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen mahaietan. Sektore-eremu horietako batzorde parekideetan, funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren eta lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboaren indarralditik eta aplikaziotik eratorritako gaiak landuko dira, hala dagokionean.

Bestalde, Zuzendaritza hau Berdintasunerako Batzorde Iraunkorreko lehendakaria da. Batzorde horretan ezarriko dira Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planean jasotako neurriak, sindikatuen akordiorik gabe erregistratu ondoren. Era berean, III. Berdintasun Plana (2025-2028) egiteko negoziazioei ekingo zaie.

Eguneratzeari dagokionez, arreta sozialen esparruan ezagutza eta segurtasun juridikoa bermatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eta barne-jarraibideak egokitzen eta eguneratzen jarraituko da.

Telelanari dagokionez, Dekretu bidez euskal sektore publiko osorako erregulazioa onartu ondoren, negoziazio bat sustatuko da sindikatuetak ordezkariekin Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetarako, hura ezartzeko eta zerbitzuak emateko modalitate horretarako sarbidean, jarraipenean eta ebaluazioan hobekuntzak ezartzeko.

Lan-osasunari dagokionez, kontuan izan behar da 2025. urtean osasunaren zaintza eta arlo teknikoaren lana kudeatzeko aplikazio informatikoa berria ezartzeko beharrezkoak diren jarduerak egin behar direla, prebentzio-zerbitzuaren jarduketak sistematizatuta egon daitezten, arlo medikoaren eta zerbitzuko arlo teknikoaren artean jarduketa integratu bat ahalbidetuko duen aplikazio baten bidez, sail eta erakunde autonomoekin.

Gainera, ezinbestekoa da langile guztiei lan-baldintzen hitzarmenean/akordioan ezarritako mediku-azterketen urteko kopurua egingo zaiela bermatzea, batez ere kontuan hartuta, oraindik atzerapen nabarmena dagoela koronabirusak eragindako pandemiaren bi urteetan egindako azterketen geldialdiak eraginda.

Urte horretan, halaber, kudeaketa zentralizatuko lantokietako arriskuen ebaluazioekin jarraituko ditugu hiru lurraldeetan, bertan egiten baitute lan langile gehienek.

Era berean, jarraitu egin behar da arrisku espezifikoak dituzten lanpostuetako arriskuen ebaluazioak egiten, larrialdi-planak berrikusten eta prestatzen (simulazioak barne) eta arrisku psikosozialak kudeatzen, eta, azkenik, langileen eskaera zehatzeki erantzuteko behar diren jarduerak egiten.

Asimismo, se proporcionará apoyo para facilitar la marcha de los procesos de negociación colectiva, especialmente en el ámbito de las Mesas de la Administración General de la CAE y sus OO.AA., y el buen funcionamiento de las comisiones de trabajo ligadas a ellas, y dará soporte a los instrumentos de coordinación de la negociación colectiva de los distintos ámbitos sectoriales, Entes Públicos y Sociedades públicas.

En el ejercicio 2025, la Dirección de Relaciones Laborales liderará la negociación colectiva en las mesas del personal funcionario y laboral de la Administración General y sus OO.AA. En las comisiones paritarias de estos ámbitos sectoriales, se tratarán, cuando proceda, las cuestiones derivadas de la vigencia y aplicación del Acuerdo regulador de condiciones de trabajo del personal funcionario y del Convenio colectivo del personal laboral.

Por otra parte, esta Dirección ostenta la presidencia de la Comisión Permanente de Igualdad, foro en el que se implantarán las medidas pendientes recogidas en el II Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres en la Administración General y sus OOAA tras el registro del mismo sin acuerdo sindical y, asimismo, se procederá a iniciar las negociaciones para elaborar el III Plan de Igualdad (2025-2028).

En el plano de la actualización, se proseguirá con la acción de adecuar y actualizar las disposiciones reglamentarias e instrucciones internas necesarias para garantizar el conocimiento y la seguridad jurídica en el ámbito de las atenciones sociales.

En relación con el teletrabajo, una vez aprobada la regulación por Decreto para todo el sector público vasco, se promoverá una negociación con los representantes sindicales para Administración General y sus OOAA que posibilite su implantación y establecimiento de mejoras en el acceso, seguimiento y evaluación de esta modalidad de prestación de servicios.

En cuanto a la salud laboral, hay que tener en cuenta que en el año 2025 se implementará y desarrollará la nueva aplicación informática para la gestión de la vigilancia de la salud y la labor del área técnica, con el fin de conseguir que las actuaciones del servicio de prevención estén sistematizadas a través de una aplicación que permita una actuación integrada entre el área médica y el área técnica del servicio con los departamentos y organismos autónomos.

Además, es imprescindible garantizar que se realice el número anual de los reconocimientos médicos estipulados en el convenio/acuerdo de condiciones de trabajo a todo el personal, sobre todo teniendo en cuenta que hay un retraso considerable que aún perdura producido por el parón de los reconocimientos durante los dos años de pandemia por coronavirus.

En el año 2025 se continuará con las evaluaciones de riesgos de los centros de trabajo de gestión centralizada en los tres territorios, que es donde presta su labor el grueso del personal empleado.

Asimismo, se debe continuar con la realización de las evaluaciones de riesgos de los puestos con riesgos específicos, con la revisión y elaboración de los planes de emergencia (incluidos simulacros) y con la gestión de los riesgos psicosociales y, finalmente, con las actuaciones precisas para responder a las demandas concretas del personal.

Zerbitzuak Berdintasunerako Batzorde Iraunkorren parte hartzen jarraituko du, Berdintasun Planaren laneko osasunaren ardatzean aurreikusitako ekintzak abian jartzen laguntzeko.

ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA ZERBITZU OROKORRETAO SAILBURUORDETZA

Gobernantza, Administrazio digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen Dekretuak honako egiteko hauek ematen dizkio Administrazio digital eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzari: Administrazioaren egoitzen eta eraikinen zerbitzuen kudeaketa, normalizazioa eta homologazioa baita artxibo-sistemarena eta argitalpenarena ere. Horrez gain, estrategia eta eraldaketa digitalak, informazioaren sistemak, telefoniaren, azpiegituren eta sare- edo telekomunikazio- zerbitzuen arloko eskumenak ematen dizkio.

Era berean, euskal administrazio publikoen prozedurak, berrikuntza publikoaren sustapena, zuzendaritza eta garapena, bereziki Administrazio eta gobernu elektronikoena, Euskal Gobernantza Publikoaren ereduaren esparruan, eta herritarrei arreta zentralizatua, kanal anitzekoa eta kalitatezkoa emateko proiektuak kudeatzea eta gauzatzea dagozkio.

Era berean, EAeko Administrazio Publikoko Datuak Babesteko ordezkarria Sailari atxikitzen zaio Sailburuordetza honen bitartez.

ESTRATEGIA DIGITALAREN ZUZENDARITZA

Informatika eta telekomunikazio arloaren barruan, jarduera hauek nabarmentzen dira:

2025eko ekitaldian, Estrategia Digitalaren Zuzendaritzak, EJIE sozietate publikoaren jarduketan bidez, sektore publikoko informazio-sistemen eta Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Sare Korporatiboaren komunikazioen euskarri-zerbitzuak bermatzen eta kudeatzen jarraituko du, Eusko Jaurlaritzak EJIEri ematen dizkion IKT zerbitzu errepikariak modu bateratuan kudeatzeko eta emateko enkarguaren esparruan.

Segurtasun Eskema Nazionala betetz, identitateen kudeaketa hobetu nahi da, enplegatu publikoak baliabide digitalen erabileran autentifikatzen direla ziurtatzeko.

EJIEren SOCaren bidez gauzatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zibersegurtasunaren lanak, mehatxu guztiak babesteko, hautemateko, erantzuteko, arintzeko eta ezabatzeko tresnak hedatuz, azpiegitura teknologikoak, komunikazioak eta lanpostu korporatibo guztiak babesteko.

Se continuará con la participación del servicio en la Comisión Permanente de Igualdad, con el fin de contribuir a poner en marcha las acciones previstas en el eje de salud laboral del Plan de Igualdad.

VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y SERVICIOS GENERALES

